

ALKATEA  
Josu Artetxe

AIARAKO UDALAK 2014ko AZAROAREN 17an  
EGINIKO EZOHIKO BILERAREN AKTA.

ZINEGOTZIAK

Lauren Uria  
Esteban Hernando  
Aitziber Álava  
Garbiñe Alaña  
Julio Etxaurren  
Esmeralda Martínez  
José Antonio Bartolomé  
Iratxe Parro  
Iraida Saenz de Lafuente  
José Luis Pedruzo

Arespalditzan, udaletxeko bilkura aretoan, bi mila eta hamalauko azaroaren hamazazpian, zortziak direnean, Udalbatza Osoa bildu da, ezohiko bilkura egiteko. Josu Artetxe Arana alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut eta ekitaldiaren fede eman dut.

IDAZKARIA

Naiara Lazpita Marcos

Alkate jaunak ongietorria eman die osoko bilkurako guztiei.

Jarraian, Eguneko Aztergaien Zerrendan dagoen puntu bakarra jorratu da:

**1.- Baztertzea, bidezkoa bada, *Incoc Iniciativas para la Construcción y Obra Civil, SL* enpresa “Luiadondoko erabilera anitzeko eraikina birgaitzea” obraren lizitaziorik eta obra hori, bidezkoa bada, *Eraikuntza Birgaituntza Artapena, SL* enpresari esleitzea.**

Ez da gaiari buruzko beste ezer esan, eta bozketa egin da. Aho batez onetsi da.

Eta hori dela bide

**IKUSI DA.-** 2014ko uztailaren 17ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez onetsi egin ziren baldintza ekonomiko eta administratibo berezien pleguak. Horien arabera dago indarrean premiazko prozedura irekiaren bidez “Luiadondoko erabilera anitzeko eraikina zaharberitzea” obrak gauzatzeko lizitazio publikoa.

**IKUSI DA.-** 2014ko irailaren 19an argitaratu zen 106 zenbakiko ALHAOn aipatu obraren lizitazio-iragarkia.

**IKUSI DA.-** Udalaren kontratatzailearen profilean ere egin zen horren inguruko publizitatea.

**IKUSI DA.-** Eskaintzak aurkezteko emandako epean zortzi proposamen aurkeztu zirela. Horrela jaso da dagokion espedientean.

**IKUSI DA.-** 2014ko urriaren 20an aurkeztutako proposamen ekonomikoak ireki ziren, eta egun bereko esku-hartze txostenean aipatutakoaren arabera, *Incoc Iniciativas para la Construcción y Obra Civil, SL* eskaintza neurrigabea edo ausartegia aurkeztu du.

**IKUSI DA.-** SPKLTBren 152. artikuluan ezarritako prozedurarekin bat etorritik, *Incoc Iniciativas para la Construcción y Obra Civil, SL* enpresari entzun egin zaio aurkeztutako eskaintza justifikatu zezan.

**IKUSI DA.-** Obraren zuzendari teknikoak 2014ko azaroaren 4an eginiko txostenaren bidez ondorioztatu da ez dela behar bezala justifikatu eskaintzaren balorazioa, eta, beraz, ez dela bideragarritzat jotzen kontratua betetzea, eskaintzatik ondorioztatzen diren baldintzak aintzat hartuta.

**IKUSI DA.-** Txosten juridikoa. Horren bidez, txosten teknikoak ikusita ondorioztatzen da SPKLTBren 152.4 artikuluekin bat etorritik, kontratazio-organoak lizitaziorik baztertzat jo dezakeela *Incoc Iniciativas para la Construcción y Obra Civil, SL* enpresa, ez baitu justifikatu obra eskaintutako prezioen bidez bete ahal izatea.

**IKUSI DA.-** 2014ko azaroaren 7an kontratazio-mahaia deitu zen, eta txosten teknikoak ikusita erabaki da kontratazio-organoari proposatzea *Incoc Iniciativas para la Construcción y Obra Civil, SL* enpresa lizitaziotik baztertzeta. Hala, berriz ere kalkulatu dira aurkeztutako gainerako enpresen puntuazioak, *Incoc Iniciativas para la Construcción y Obra Civil, SL* enpresa baztertu ondoren. Bada, honela geratu dira:

- LURGOIEN .....89,18 puntu
- CONSTRUCCIONES URRUTIA .....86,27 puntu
- CONSTRUCCIONES MOYUA .....90,15 puntu
- CONSTRUCCIONES OLABARRI .....81,37 puntu
- ERAIKUNTZA BIRGAIKUNTZA ARTAPENA, S.L 93,14 puntu
- SLK LAGUNKETA .....89,03 puntu
- GESALTZA .....80,65 puntu

Horrenbestez, kontratazio-mahaia kontratazio-organoari proposatu dio ***Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, SL*** enpresari esleitzea kontratua, horrek lortu baitu puntuazio onena, esleipen-irizpideak aintzat hartuta.

**AINTZAT HARTU DA.-** Obrak eta Zerbitzuak Informazio Batzordeak 2014ko azaroaren 13an emandako aldeko irizpena.

**AINTZAT HARTU DA.-** 2014ko azaroaren 14an, Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, SL enpresak abala aurkeztu du eskatutako behin betiko berme gisa, bai eta pleguetan jasotako gainerako dokumentazioa ere.

Aztertu da espedientearen dokumentazioa, eta SPKLTB onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako EDn ezarritakoarekin bat etorritik,

Udalbatza Osoak, aho batez, hau **ERABAKI DU:**

**Lehenengoa.-** Baliozkotzat jotzea lizitazioa eta *Incoc Iniciativas para la Construcción y Obra Civil, SL* enpresa bertatik kanpo uztea, ez baitu behar bezala justifikatu aurkeztutako eskaintza eskaintako prezioetan bete daitekeenik.

**Bigarrena.-** *Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, SL* enpresari esleitzea “Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina zaharberritzea” obra-kontratua, 635.642, 68 euroko gehi BEZari dagokion zenbatekoan; hau da, guztira 769.127,64 euroko zenbatekoan.

**Hirugarrena.-** HAMABI HILABETEko epea egongo da obrak egiteko, zuinetaren egiaztatze-akta sinatzen denetik aurrera zenbatzen hasita.

**Laugarrena.-** Derrigor bete beharko dira, kontratazioari buruzko araudi guztiaz gain, kontratu hau araupetzen duten pleguak eta enpresa esleipendunak aurkeztutako eskaintza tekniko eta ekonomikoa (kontratua osatuko du).

**Bosgarrena.-** Onestea 2014 urteari dagokion obraren gastua, 2014 ekitaldiaren aurrekontuaren kargura eta 2015eko aurrekontuan dagozkion kredituak gordetzeko konpromisoa hartzea.

**Seigarrena.-** Erabaki hau *Incoc Iniciativas para la Construcción y Obra Civil, SL*ri jakinaraztea eta adieraztea erabaki honen aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela Udalaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpen jasotzen den egunetik zenbatzen hasita edo zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa Administrazioarekiko Auzien Vitoria-Gasteizeko Epaitegiaren aurrean.

**Zazpigarrena.-** Esleipena jakinaraztea gainerako lizitazzaileei.

**Zortzigarrena.-** Esleipena jakinaraztea *Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, SL* enpresari, eta adieraztea dagokion kontratua sinatzeko ohartaraziko zaiola.

**Bederatzigarrena.-** Erabaki hau argitaratzea ALHAOn eta kontratatzailearen profilean.

Jorrazteko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du zortziak eta berrogei minutu zirenean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hamalauko azaroaren hamazazpian.

OE  
ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARIA,

Izpta.: Josu Artetxe Arana

Izpta.: Naiara Lazpita Marcos.